

## Xedapen Orokorrak

### JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1789

AGINDUA, 2010eko otsailaren 9koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkar-go Ofizialaren Estatutuen aldaketa onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionalen Elkargoaren eta Tituludun Lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Arautegiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretua aipatu eskumenaren indarrez eman ziren. Legeko 33. artikuluan eta dekretuko 38. artikuluan ezartzen denez, elkargoaren estatutuak eta horien aldaketak eskumena duen sailari jakinarazi beharko zaizkio. Gero, sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitartez. Azkenik, agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Irungo Aduanetako Agenteen eta Komisio-hartzaileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak legearen arabera direla egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

**1. artikulua.**– Onarpena.

Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoaren Estatutuen aldaketa onartzea.

**2. artikulua.**– Argitalpena.

Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoaren Estatutuen aldaketa agindu honen eranskin gisa argitaratzeko agintzea.

**3. artikulua.**– Inskripzioa.

Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoaren Estatutuetan egin den aldaketa Titulu-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1789

ORDEN de 9 de febrero de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública por la que se aprueba la modificación de los estatutos del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales y el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, dictadas ambas en virtud de la citada competencia, establecen en sus artículos 33 y 38 respectivamente que los estatutos colegiales, así como su reforma, serán comunicados al Departamento competente para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO:

**Artículo 1.**– Aprobación

Aprobar la modificación de los Estatutos del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun.

**Artículo 2.**– Publicación

Ordenar la publicación de la modificación de los Estatutos del Colegio de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun como anexo a la presente Orden.

**Artículo 3.**– Inscripción

Ordenar la inscripción de la modificación de los Estatutos del Colegio de Agentes y Comisionistas de

dun Lanbideen Erregistroan inskribatzeko agintzea, elkargoa formalki osatzen den unean.

AZKEN XEDAPENA.— Eraginkortasuna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 9a.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

## IRUNGO ADUANETAKO AGENTEEN ETA KOMISIO-HARTZAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUAK

### I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

**1. artikulua.**— Irungo Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna duena bere xedeak betetzeko, bere lurralde-eremuan.

**2. artikulua.**— Korporazio honen jardute-eremua Irungo Aduanako barrutia izango da. Hala ere, 1645/81 Errege Dekretuaren 29. artikulua ezartzen dizkion eremuetan ere jardun ahal izango du.

**3. artikulua.**— Elkargoaren egoitza Irunen dago (Euskadi plaza, 4, 1. solairua (ZAISA)).

**4. artikulua.**— Elkargoak, bere jarduerari dagokionez, men egin beharko dio bai Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeari —aurrerantzean Profesionalen Elkargoei buruzko legea—, bai Espainiako Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Kontseilu Nagusiak —aurrerantzean Kontseilua— hartzen dituen erabakiei eta bere estatutuei.

### II. KAPITULUA ELKARGOAREN HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

**5. artikulua.**— Aduanetako agente eta komisio-hartzaileen —aurrerantzean agenteak— lanbidea antolatzea, bere ordezkari bakarra izatea eta elkargokideen interes profesionalak zaintzea dira korporazio honen helburuak. Horrek ez du esan nahi, Herri Administrazioak —aurrerantzean Administrazioa— eta Kontseiluak eskumenik izango ez dutenik.

Aduanas de Irun en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

DISPOSICIÓN FINAL.— Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de febrero de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

## ESTATUTOS DEL COLEGIO OFICIAL DE AGENTES Y COMISIONISTAS DE ADUANAS DE IRUN

### CAPÍTULO I NORMAS GENERALES

**Artículo 1.**— El Colegio Oficial de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun es una Corporación de derecho público con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines específicos dentro de su ámbito territorial.

**Artículo 2.**— El ámbito de actuación de esta Corporación comprende la circunscripción de la Aduana de Irun, sin perjuicio de aquellas que puedan corresponderle por imperativo del artículo 29 del Real Decreto 1645/1981.

**Artículo 3.**— El domicilio social del Colegio se encuentra en Irun, Plaza de Euskadi, n.º 4-1.º (ZAISA).

**Artículo 4.**— Este Colegio queda sujeto en su actuación a las disposiciones vigentes, a la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, del Gobierno Vasco, de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales (en adelante Ley de Colegio Profesionales) y a los acuerdos y Estatutos del Consejo General de los Colegios de Agentes y Comisionistas de Aduanas de España (en adelante Consejo).

### CAPÍTULO II FINALIDADES Y FUNCIONES DEL COLEGIO

**Artículo 5.**— Esta Corporación tiene como finalidades esenciales la ordenación del ejercicio de la Profesión de Agentes y Comisionista de Aduanas (en adelante Agentes), su representación exclusiva y la defensa de los intereses profesionales de los colegiados, sin perjuicio de la competencia de la Administración Pública (en adelante Administración) y de la que corresponda al Consejo.

Bere lurralde-eremuan, egiteko hauek dagozkio:

5.1.— Lanbidean jarduteko elkargoko arauak betetzen diren zaintzea, legezko bateraezintasunak zorrotz zaintzea, lanbideko deontologia printzipioei eta agenteen egitekoak eta eskumenak arautzen dituzten indarreko xedapenen printzipioei eustea, bere eskumenen eremuan.

5.2.— Estatutu hauek eta elkargoko organoek, beren eskumeneko alorretan, hartzen dituzten arauak eta erabakiak betetzea eta elkargokideei betearaztea.

5.3.— Elkargokideen maila teknikoa, etikoa eta kulturala ahalik eta onena izan dadin sustatzea, dituen baliabide guztiekin.

5.4.— Elkargokideei aholkuak ematea, beharrezkoa baldin bada, Administrazioarekiko harremanetan.

5.5.— Irizpenak eta txostenak egitea; agintariek, epaile eta auzitegiek, edozein erakunde pribatu nahiz publikok, partikularrek edo elkargokideek lanbidez egiten dizkioten kontsultei erantzutea; eta peritoak izendatzea.

5.6.— Elkargoak erakundeetan, batzordeetan, epaimahaietan eta erakunde publiko edo pribatuetan izango dituen ordezkariak izendatzea, ordezkotza hori eskatzen zaionean.

5.7.— Justizia epaitegietan eta Administrazioan lanbideko intrusismoa salatzea eta segimendua egitea.

5.8.— Legeen urratzea salatzea eta segimendua egitea, lanbiderako kaltegarriak diren egintzak direnean.

5.9.— Behar denean, elkargokideei diziplina zehapen eta zigorrak jartzea, estatutu hauetan araututako prozeduraz.

5.10.— Elkargokideen kuotak eta diru-ekarpenak finkatzea.

5.11.— Fondoak biltzea eta administratzea, sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua prestatzea, likidatzea, balantzea egitea eta elkargokideen Batzorde Orokorri jakinaraztea, sendetsi dezan.

5.12.— Lehia desleiala saihestea, elkargokideen artean.

5.13.— Elkargokideen identifikazio-txartelak egitea eta baliogabetzea.

5.14.— Ahaldun eta laguntzaileentzako ahalmen eta baimen emateak onestea.

5.15.— Agente elkargokideen lansarien fakturak kobratzea eta horretarako ezartzen den zenbatekoa edo ehunekoa jasotzea.

Le corresponde el ejercicio, en su ámbito territorial, de las funciones siguientes:

5.1.— Velar por el cumplimiento de las normas colegiales de actuación profesional, firme observancia de las incompatibilidades legales, mantenimiento fiel a los principios de deontología profesional y de todas las obligaciones que imponen las disposiciones vigentes que regulan las funciones y competencias de los Agentes, dentro del ámbito de su competencia.

5.2.— Cumplir y hacer cumplir a los colegiados estos Estatutos y, en su caso, el Reglamento de Régimen Interior, así como las normas y las decisiones adoptadas por los órganos colegiales, en materia de su competencia.

5.3.— Promover, por todos los medios a su alcance, el mayor nivel técnico, ético y cultural de sus colegiados.

5.4.— Asesorar a los colegiados, si es necesario, en sus relaciones con la Administración.

5.5.— Emitir dictámenes e informes y evacuar las consultas de carácter profesional solicitadas, tanto por las autoridades, jueces y tribunales, como por cualquier entidad pública o privada, particular o colegiada, y actuar para la designación de peritos.

5.6.— Nombrar los representantes del Colegio en las entidades, comisiones, jurados, y las organizaciones públicas o privadas para los que fuera solicitada tal representación.

5.7.— Denunciar y perseguir ante la Administración y los Tribunales de Justicia los casos de intrusismo profesional.

5.8.— Denunciar y perseguir las transgresiones legales conocidas por lo que hace a las actuaciones que representen un perjuicio para la profesión.

5.9.— Imponer sanciones y correcciones disciplinarias a los colegiados, si es el caso, mediante el procedimiento regulado en estos Estatutos.

5.10.— Fijar las cuotas y las aportaciones económicas de los colegiados.

5.11.— Recaudar y administrar sus fondos elaborando el presupuesto anual de ingresos y gastos, y a su liquidación y balance, haciéndolo conocer a la Junta General de colegiados para posibilitar su sanción.

5.12.— Evitar la competencia desleal entre colegiados.

5.13.— Expedir y revocar las tarjetas o carnets de identificación de los colegiados.

5.14.— Visar la concesión y revocación de poderes y autorizaciones otorgadas a apoderados y colaboradores.

5.15.— Proceder, en su caso, al cobro de las facturas de honorarios por cuenta de los Agentes colegiados y percibir la cantidad o porcentaje que se establezca a este efecto.

5.16.– Bezero berankorren liburu-erregistro berezi bat prestatzea, aduanako eragiketak eskatzen dituzten partikularrei edo erakundeei buruzkoa; informatzeko bakarrik izango da liburu hori –elkargokideek Elkargoaren barruan erabil dezaten izango da–, eta indarreko legerian dauden xedapenei lotuko zaie.

5.17.– Lanbidearekin zuzenean nahiz zeharka lotuta dagoen beste edozein xede, eta Elkargo Profesionaleko Legearen 24. artikulua ezartzen dizkionak. Hori-ek ahal bezain ondoen betetzeko behar den adina sail, zerbitzu edo batzorde eratu ahalko ditu. Lanbideari eta Elkargoko funtzionamenduari eragin diezaiokeen ororen berri eman beharko die elkargokideei.

### III. KAPITULUA ELKARGOKIDEAK

#### 6. artikulua.– Elkargokidetzea.

Elkargoan sartzeko, interesik duenak eskabidea egin beharko dio Elkargoari. Betekizun hauek konplitu beharko ditu aurrez:

6.1.– Aduanetako agentearen titulua edo lanbidean aritzeko legez gaitasuna ematen dion titulua bat aurkeztu beharko du, edo, hori ezean, notariz- testigantza edo horren benetako kopia.

6.2.– Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dago- kion altaren justifikantea.

6.3.– Dagozkion fidantzak egin beharko ditu.

6.4.– Sartze-eskubideak ordaindu beharko ditu. Ordaindu beharreko zenbatekoa Elkargoaren Batzorde Orokorra ezarriko du, Kontseilu Nagusiak –hala badagokio– zehaztutako mugak errespetatuz.

6.5.– Zinpeko aitormena egin beharko du, lanbidean aritzeko gaitasungabeturik ez dagoela eta legeek ezartzen duten bateraezintasunik ez duela adierazteko.

7. artikulua.– Eskabidea, behar diren egiaztatzeak egin ondoren, ukatu egingo zaio:

a) Eskatzen diren agiriak aurkezten ez dituenen, edo agiri horiek benetakoak eta nahikoak direla garbi ez dagoenean; kasu horretan, Gobernu Batzordeak, hala iritziz gero, ikertu egingo ditu agiriok.

b) Epai irmo batek lanbidean aritzeko gaitasuna kentzen diotenean eskatzaileari.

c) Diziplina-espediente batez zigorra jartzen zaio- nean; zigorraren aldirako izango da hori.

Elkargoaren Idazkaritzan eskariari sarrera eman zitzaien egunetik kontatzen hasita, gehienez 15 egu-

5.16.– Llevar un libro registro especial de clientes morosos, en relación con los particulares o las entidades que encomiendan operaciones de aduanas, que tendrán un carácter meramente informativo para uso interno y exclusivo de los colegiados, y que se ajustará a las disposiciones contenidas en la normativa aplicable.

5.17.– Cualesquiera otras finalidades relacionadas directa o indirectamente con el ejercicio profesional, y las que le asigna el artículo 24 de la Ley de Colegios Profesionales, pudiendo crear cuantos departamentos, servicios o comisiones se estimen convenientes para el mejor cumplimiento de aquellos. Habrá de informar a los colegiados de todo lo que pueda afectar al ejercicio de la profesión y al propio funcionamiento del Colegio.

### CAPÍTULO III DE LOS COLEGIADOS

#### Artículo 6.– Colegiación.

La incorporación a este Colegio se solicitará por el interesado mediante instancia dirigida al Colegio, con el cumplimiento de los requisitos siguientes:

6.1.– Presentación del título de Agente de Aduanas o de aquel que le habilite legalmente para el ejercicio profesional, o en su defecto, testimonio notarial o copia auténtica del mismo.

6.2.– Justificación del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

6.3.– Constitución de las fianzas correspondientes.

6.4.– Ingreso de los derechos de incorporación. La cuantía de éstos será la establecida por acuerdo de la Junta General del Colegio, dentro de los límites determinados, en su caso, por el Consejo General.

6.5.– Declaración jurada de no encontrarse inhabilitados para el ejercicio profesional y no encontrarse incurso en ninguna de las causas de incompatibilidad establecidas por la Ley.

Artículo 7.– La solicitud de admisión sólo podrá ser denegada previas las garantías necesarias en los supuestos siguientes:

a) Cuando no se aporten los documentos requeridos u ofrezcan dudas racionales sobre su autenticidad y suficiencia; en este caso la Junta de Gobierno abrirá la oportuna investigación.

b) Cuando el solicitante hubiese sido condenado por sentencia firme que le inhabilite para el ejercicio de la profesión.

c) Como consecuencia de la sanción impuesta con ocasión de expediente disciplinario, durante el tiempo que dure la misma.

La resolución procedente deberá ser comunicada al interesado en el plazo máximo de 15 días a contar

neko epearen barruan jakinarazi behar zaio ebazpena interesatuari.

**8. artikulua.**— Elkargokide guztiak behartuta dau- de lanbideko intrusismo ororen berri ematera.

**9. artikulua.**— Kuotak.

Elkargokideak behartuta daude kuotak behar den garaian ordaintzera. Kuota horiek Elkargoaren Batzor- de Orokorrak ezarriko ditu urtero, eta ohikoak nahiz ezohikoak izan daitezke (finkoak edo aldakorrak bi kasuetan).

Kuota finkoak izango dira elkargokide guztiek or- daindu behar dituzten zenbateko jakinak.

Kuota aldakorrak izango dira elkargokide bakoiz- tzak egiten duen lanaren arabera ezarritakoak.

Kuota mistoak izango dira zati jakin bat eta lana- ren araberako zatia ordaintzen denean.

Obligazio hori betetzen ez bada, Kontseilu Nagusi- aren Estatutuen 35. artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo du Elkargoak.

**10. artikulua.**— Elkargoak, bere eremuan, lanbi- dearen ordezkotza eta defentsa egingo du Administra- zioan, instituzioetan, epaitegietan eta partikularrekin; legitimazioa izango du lanbidearen eta elkargokideen interesei eragiten dieten auzietan alderdi izateko; eta eskatzeko eskubidea izango du, legearen arabera, Profesionalen Elkargoei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Elkargokideen interes profesionalen onerako diren egiteko guztiak ere erabiliko ditu elkargoak.

**11. artikulua.**— Korporazioko bizitzan parte har- tzeko eskubidea eta obligazioa daukate elkargokide guztiek, bereziki, batzar orokorretara joateko eta, es- tatutu hauetan ezarritakoari jarraituz, esleitu zitzaizki- en karguak leial betetzeko.

**12. artikulua.**— Elkargoaren erabakien aurka, el- kargokideek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute, egintza jakinarazten edo argitaratzen den egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zenetik hiru hilabete igarota, ez bada ebazpen adierazirik eman, errekurtsua ezetsi egin dela ulertuko da, eta bidezko diren egintzetan, administrazioarekiko auzitarako bi- dea irekita geratuko da.

**13. artikulua.**— Elkargokideek eskubidea izango dute elkargoak interes profesionalak zaindu diezazki- en, lehia desleialaren aurkako babesa eman diezaien, lanbideari buruzko gaietan aholkua eman diezaien, maila teknikoa igo diezaien, eta gizarte aurreikuspe-

desde la fecha en que tuvo entrada su instancia en la Secretaría del Colegio.

**Artículo 8.**— Todos los colegiados tienen la obliga- ción de poner en conocimiento del Colegio los casos de intrusismo profesional que conozcan.

**Artículo 9.**— Cuotas.

Los colegiados quedan obligados al pago puntual de sus cuotas. Estas, que serán fijadas anualmente por la Junta General del Colegio, podrán ser ordina- rias y extraordinarias y, ambos casos, fijas, variables o mixtas.

Serán fijas las establecidas por una cantidad deter- minada e igual para todos los colegiados.

Serán variables las señaladas en proporción al tra- bajo que cada colegiado desarrolle.

Serán mixtas las cuotas que en parte se satisfagan por una cantidad fija y el resto proporcional al traba- jo realizado.

En caso de incumplimiento de esta obligación, el Colegio actuará conforme a lo dispuesto en el artícu- lo 35 de los Estatutos del Consejo General.

**Artículo 10.**— El Colegio ostentará en su ámbito, la representación y defensa de la profesión ante la Administración, Instituciones, Tribunales, Entidades y particulares, con legitimación para ser parte en to- dos aquellos litigios que afecten a los intereses de la profesión y de los colegiados, y ejercerá el derecho de petición, conforme a la Ley, de acuerdo con lo que establece la Ley 18/1997 de 21 de noviembre, de Colegios Profesionales.

El Colegio ejercerá, asimismo, todas aquellas fun- ciones que redunden en beneficio de los intereses profesionales de los colegiados.

**Artículo 11.**— Todos los colegiados tiene el dere- cho y el deber de participar activamente en la vida corporativa, especialmente, asistir a las Juntas Gene- rales, así como desempeñar fielmente, de acuerdo con los términos establecidos en estos Estatutos, los car- gos para los cuales fueron elegidos.

**Artículo 12.**— Contra los acuerdos del Colegio, los colegiados podrán recurrir en alzada ante el Consejo en el plazo de un mes a contar del siguiente a la fe- cha de publicación o notificación del acto.

Transcurridos tres meses desde la interposición del recurso de alzada sin que se notifique su resolu- ción, se entenderá desestimado y quedará expedita, en aquellos actos que proceda, la vía contencioso- administrativa.

**Artículo 13.**— Los colegiados tendrán derecho, por parte del Colegio, a la defensa de sus intereses profe- sionales, a la protección contra la competencia des- leal, al asesoramiento en los diferentes aspectos de la profesión, a la elevación del nivel técnico, así como



neko arauak bete ditzan, dagozkion organoen bitartez.

**14. artikulua.**— Elkargoak Aurkibide-Liburu bat erabiliko du, eta bertan, ordena-zenbakiarekin batera, ondoko datuak idatziko dira: elkargokidearen izena edo sozietate-izena, helbidea, alta-eguna eta, hala dagokionean, baja-eguna, identifikazio fiskaleko zenbakia, Aduana eta Zerga Berezietako Departamentuak adierazitako informatika-kodearen zenbakia, eta beharrezkotzat jotzen dituen gainontzeko oharrak. Elkargokideen ordena-zenbakia finkoa eta aldaezina izango da.

Elkargokideek, gai honi loturiko aldaketaren bat baldin badago, Elkargoari derrigor jakinarazi beharko diote.

**15. artikulua.**— Identifikazio-txartelak.

Aduana-Errenten Bulegoaren aurrean behar bezala jarduteko, Kontseiluaren Estatutuetako 31. artikulua-ren 17. puntuan ezarrita dagoenaren arabera, Elkargoak hiru kategoriatako identifikazio-txartelak eman eta ezeztatu ahal izango ditu:

a) Banakako aduana-agenteentzat eta sozietate-administratzaileentzat.

b) Ahalzun orokorrentzat.

c) Aduana-tramiteak egiteko Ahalorde Partzialak dituzten langile edo agindupekoentzat.

Elkargokideek, gai honi loturiko aldaketaren bat baldin badago, Elkargoari derrigor jakinarazi beharko diote.

**16. artikulua.**— Ahalordeak.

Agenteei Ahalordeak eman ditzakete aduanako bideratze-eragiketa guztietarako edo eragiketa jakin batzuk egiteko, indarrean dauden xedapenen arabera, beti ere dagokion bulegoko langile-zerrendan agertzen diren eta benetan bertako menpekoak diren pertsonen ematen badizkiete, eta aplikatzeko den araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte. Baldintza horiek betetzen ez dituen agentea edo agentzia erantzukizunean eroriko da, eta ezgaituta gera daiteke.

Indarrean dauden xedapenetan ezarritakoarekin bat, agenteen ahaldunek agente bakar baten ordezkaritza izan dezakete.

**17. artikulua.**— Ahalordeen Erregistro-Liburuan, ahalordeak bi ataletan bananduta idatziko dira. Atal batean, banakako agentei emandako ahalordeak idatziko dira, Ahalorde Orokorrak eta bideratze-eragiketa jakin batzuk egiteko Ahalorde Partzialak bereiziz.

Sozietateak diren Aduana-Agentziei buruzko atalean, horien gerente, zuzendari, administratzaile edo Administrazio Kontseiluko lehendakariaren izen-abizenak idatziko dira, kasu bakoitzean pertsona ho-

al cumplimiento de las normas de previsión social mediante los órganos correspondiente.

**Artículo 14.**— El Colegio llevará un Libro-Índice en el que se anotará, con el número de orden, el nombre, razón o denominación social de cada colegiado, domicilio, fecha de alta y, en su caso, de baja, número de identificación fiscal y número de código informático señalado por el Departamento de Aduanas e Impuestos Especiales, además de aquellas observaciones que se crean necesarias. El número de orden de los colegiados será fijo e invariable.

Los colegiados estarán obligados a comunicar al Colegio cualquier modificación que se produjera en esta materia.

**Artículo 15.**— Tarjetas de identificación.

Para su debida actuación ante la Oficina de la Renta de Aduanas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 31, apartado 17 de los Estatutos del Consejo, el Colegio podrá expedir y revocar tarjetas de identificación de tres categorías:

a) Para Agentes de Aduanas individuales y administradores de sociedades.

b) Para apoderados generales.

c) Para empleados o dependientes con Poderes Parciales para trámites aduaneros.

Los colegiados estarán obligados a poner en conocimiento del Colegio cualquier modificación que se produjera en esta materia.

**Artículo 16.**— Poderes.

Los Agentes podrán otorgar Poderes para todo despacho aduanero o Parciales para determinadas operaciones, con arreglo a las disposiciones vigentes, siempre que recaigan sobre dependientes reales del mismo que figuren en la nómina de personal de sus respectivas oficinas, cumpliendo los requisitos al efecto establecidos por la normativa aplicable y desarrollen en ella su trabajo, incurriendo en responsabilidad e inhabilitación el Agente o la Agencia que incumpla estos preceptos.

En consonancia con lo establecido por las disposiciones vigentes, los apoderados de los agentes solamente podrán ostentar la representación de un solo agente.

**Artículo 17.**— En el Libro-Registro de Poderes se anotarán separadamente los poderes en dos secciones, en las que constarán respectivamente, los poderes otorgados por los Agentes individuales, con distinción entre Poderes Generales y Poderes Parciales para determinadas operaciones de despacho.

En el apartado dedicado a las Agencias de Aduanas sociedades, constarán los nombres y apellidos de sus Gerentes, Directores, Administradores o Presidente del Consejo de Administración, señalando en ca-

rien artetik Agentziako buru zein den adieraziz. Era berean, aduanako bideratze-eragiketetarako edo beste edozein ondorioetarako, haien ahaldunak zein diren adierazi beharko da.

Elkargoan erregistra daitezkeen ahalordeak aduanajarduerarako izango dira, eta ahalorde horietan espreski adieraziko da ahalduna beste pertsona fisiko edo juridiko batekin ordezkatzeari debekatuta dagoela.

Elkargokideek, gai honi loturiko aldaketa edo ezeztapenen bat baldin badago, Elkargoari derrigor jakinarazi beharko diote.

#### **18. artikulua.**— Sozietateak diren Agentziak

Sozietateak diren Agentzien ordezkaritza, hala Batzorde Orokorretan nola Gobernu Batzordeetan, bertako gerente, zuzendari, administratzaile edo Administrazio-Kontseiluko lehendakariak izango dute, Kontseiluaren Estatutuetak 1. artikuluan ezarritakoaren arabera Agentzia ordezkatzuz.

#### **19. artikulua.**— Dokumentazioa.

Elkargokideek zabaltzen duten merkataritza-dokumentazioan, izena, helbide fiskala, identifikazio fiskaleko kodea, eta Aduana eta Zerga Berezietako Departamentuak adierazitako informatika-kodearen zenbakia espreski eta leku nabarmenean adieraziko dira, dokumentazioak aipatzen duen lanbide-jarduerari buruz inolako zalantzarik izan ez dadin.

#### **20. artikulua.**— Aseguramendua.

Elkargokideek, egiten duten lanbide-jardunaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibilaren arriskua dagokion seguruaren bidez estali beharra dute, Lanbide Elkargoei buruzko Legearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Elkargoak behar diren neurriak hartuko ditu agenteek betebeharrak hori betetzen dutela ziurtatzeko.

#### **21. artikulua.**— Korrespontsaliak.

Agente batek beste agente baten bideratze-enkargua jasotzen duenean, bi profesionalen arteko itun aske baten bidez onartu ahal izango du.

Agente komisio-emailea beti lehen erantzulea izango da, agente bideratzailearen aurrean, bideratze-eragiketaren berezko ondorio ekonomikoei dagokienez.

Elkargoak xedapen hau hausten duen edozein jarduketari zigorra ezarriko dio, Kontseiluaren Estatutu-etako V. Tituluan ezarritakoaren arabera.

#### **22. artikulua.**— Ikuskapenak.

Elkargokideak, Elkargoari Legeak eta Estatutu Orokorrek ematen dizkioten ikuskapenerako ahalmen eta funtzioen betetzea erraztera behartuta daude. Bere ikuskapen-funtzioaren barruan, Elkargoak, Gobernu Batzordearen erabakiaren bitartez, ikuskapenaren helburua ukitzen duten liburu eta dokumentuen azter-

da caso quienes de tales personas están al frente de la Agencia. Asimismo, se hará constar quienes son sus apoderados a otros efectos o a los de despachos aduaneros.

Los poderes registrables en el Colegio se referirán a la actividad aduanera y en ellos constará expresamente la prohibición de que el apoderado se haga sustituir por otra persona física o jurídica.

Los colegiados tendrán la obligación de comunicar al Colegio cualquier cambio o revocación que se produjera en esta materia.

#### **Artículo 18.**— Agencias sociedades.

Las Agencias de Aduanas sociedades habrán de ser representadas, tanto en las Juntas Generales como en las de Gobierno, por su Gerente, Director, Administrador o Presidente del Consejo de Administración, que represente a la Agencia según lo establecido en el artículo 1 de los Estatutos del Consejo.

#### **Artículo 19.**— Documentos.

En la documentación comercial expedida por los colegiados deberá figurar, de forma expresa y destacada, el nombre, domicilio fiscal, código de identificación fiscal y número de código informático señalado por el Departamento de Aduanas e II.EE., de forma que no ofrezca duda de la actividad profesional a que se refiere dicha documentación.

#### **Artículo 20.**— Aseguramiento.

Los colegiados tienen el deber de cubrir, mediante el correspondiente seguro, los riesgos de responsabilidad civil en que puedan incurrir a consecuencia de su ejercicio profesión, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Ley de Colegios Profesionales.

El Colegio adoptará las medidas necesarias para garantizar el cumplimiento de este deber por parte de los Agentes.

#### **Artículo 21.**— Corresponsalías.

Cuando un Agente reciba encargo de despacho de otro Agente, podrá aceptarlo mediante pacto libre entre ambos profesionales.

El Agente comitente será siempre responsable, en primer término, ante el Agente despachante, por las consecuencias económicas propias del despacho.

Cualquier actuación que contravenga esta disposición será sancionada por el Colegio de acuerdo con lo establecido en el Título V de los Estatutos del Consejo.

#### **Artículo 22.**— Inspecciones.

Los colegiados están obligados a facilitar al Colegio el cumplimiento de las facultades y funciones de inspección que, tanto la Ley como los Estatutos Generales le conceden. Dentro de su función inspectora el Colegio podrá requerir, por acuerdo de su Junta de Gobierno, el examen de los libros y documentos que

keta eska dezake, bai eta elkargokidearen agindupeko langileen nominen azterketa ere, estatutu hauetako 17. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**23. artikulua.**– Bajak.

Elkargokidearen izaera galdu egingo da:

a) Elkargokideak baja eskatzen duenean. Baja Elkargoari eskatu beharko dio, idatziz.

b) Elkargoaren erabakiz ezgaiturik geratzen denean, beti ere estatutu hauek xedatzen dutena kontuan izanik.

c) Lanbidean aritzeko ezgaitzen duen epai irmo batekin.

d) Ohiko nahiz ohiz kanpoko kuotak ordaintzen ez dituenen, sei hilabetetan, horretarako errekerimendua egin ondoren.

e) Heriotza gertatzen bada.

**24. artikulua.**– Elkargokide ez diren agenteak.

Beste Elkargo Ofizial batean inskribaturik dauden agenteek barruti honetan lan egin nahi badute, aldeztu aurretik haien Elkargoaren bitartez jakinarazi beharko dute.

Elkargoak, agente horiei, eskaini diren baina elkargoko kuotak estaltzen ez dituen zerbitzuen benetako kostuari erantzuteko Gobernu Batzordeak ezarritako baldintza ekonomikoak ordaintzea eskatu ahal izango die.

Eusko Jaurlaritzaren 18/1997 Legearen 38. artikulua ezartzen duenaren arabera, agente horiek ezin dute Elkargoko organoetan parte hartu eskubide osoko kide gisa.

IV. KAPITULUA  
ELKARGOAREN ZUZENDARITZA- ETA  
GOBERNU-ORGANOAK

**25. artikulua.**– Elkargoaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organismoak Elkargokideen Batzorde Orokorra eta Gobernu Batzordea dira.

I. ATALA  
GOBERNU BATZORDEA

**26. artikulua.**– Irungo Aduanetako Agente eta Komisionistak Elkargo Ofiziala Gobernu Batzordeak gidatuko du, elkargoa zuzentzea eta administrazioa dagozkionez gero.

Gobernu Batzordearen egitekoak, Batzorde Orokorri espresti adierazi gabekoez gain, hauek dira:

26.1.– Elkargokideei dagokienez:

a) Elkargokide egiteko eskabideak onartu ala ez ebaztea.

afecten al objetivo inspector e, incluso, el de las nóminas del personal dependiente a efectos de los establecidos en el artículo 17 de los presentes Estatutos.

**Artículo 23.**– Bajas.

La condición de colegiado se pierde:

a) Por renuncia o baja voluntaria, solicitada por escrito, que el interesado habrá de dirigir al Colegio.

b) Por inhabilitación colegial, acordada según lo que disponen estos Estatutos.

c) Por sentencia judicial firme de inhabilitación para el ejercicio de la profesión.

d) Por impago de las cuotas ordinarias o extraordinarias durante seis meses.

e) Por fallecimiento.

**Artículo 24.**– Agentes no colegiados

Los Agentes de Aduanas inscritos en otros Colegios Oficiales, que pretendan ejercer la profesión en esta demarcación, deberán comunicarlo previamente a través del Colegio de origen.

El Colegio podrá exigir a los mismos el pago de las condiciones económicas establecidas por la Junta de Gobierno para responder al coste real de los efectivos servicios prestados y que no se encuentran cubiertos por la cuota colegial.

Según dispone el artículo 38 de la Ley 18/1997 del País Vasco, dichos Agentes no podrán participar, en calidad de miembros de pleno derecho, en los órganos del Colegio.

CAPÍTULO IV  
DE LOS ÓRGANOS DE DIRECCIÓN Y GOBIERNO  
DEL COLEGIO

**Artículo 25.**– Los órganos de Gobierno, dirección y Administración del Colegio son la Junta General de colegiados y la Junta de Gobierno.

SECCIÓN I  
DE LA JUNTA DE GOBIERNO

**Artículo 26.**– El Colegio Oficial de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun se regirá por una Junta de Gobierno a la que corresponde su dirección y administración.

Son funciones de la Junta de Gobierno, además de aquellas que no estén expresamente atribuidas a la Junta General y especialmente:

26.1.– En relación con los colegiados:

a) Resolver sobre la admisión de las solicitudes de colegiación.



b) Elkargokideek lanbidean duten jokabidea zuzena den zaintzea, bai euren arteko harremanetan, baita hirugarren batzuekin dituztenetan ere.

c) Legezko gaitasunik ez duenari lanbidean jardun dezan galarazteko behar diren egintzak sustatzea.

d) Hauteskundeetarako deialdiak argitaratzea, Gobernu Batzordeko karguak betetzeko.

e) Elkargokideei bidezko diren diziplina-espedienteak irekitzea.

#### 26.2.– Elkargoko ekonomiari dagokionez:

a) Elkargoko fondoak biltzea eta administratzea.

b) Aurrekontuak idaztea eta Elkargokideen Batzorde Orokorrari kontuen berri ematea urtero. Horretarako, Ohiko Batzar Orokorra egin baino hamar egun lehenago, kontuak elkargoan izango dira ikusgai, elkargokide guztiek azter ditzaten.

c) Fondoan mugimenduak baimentzea, bankuko kontuak irekitzean edo intsuldatzean.

d) Elkargoaren zerbitzurako langileak kontratatzea, eta beren ordainsariak eta laneko diziplina-araubideari loturiko gutzia ezartzea.

26.3.– Bere lurralde-eremuan, erakunde ofizialei dagokienez:

a) Elkargokideak defendatzea lanbideko lanetan.

b) Elkargoaren izenean, elkargoaren eremuan lanbidean hobeto aritzeko beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak bideratzea, bai eta interes profesionale-rako onuragarri izan daitekeen oro ere.

#### 27. artikulua.– Karguak.

Gutxienez 4 kide eta gehienez 10 izango dituen Gobernu Batzorde batek eraenduko du elkargo hau. Kide horietariko bat lehendakaria izango da, beste bat lehendakariordea, hirugarren bat idazkaria, eta azken bat diruzaina.

#### 28. artikulua.– Hautespena.

Gobernu Batzordeko karguak lau urterako dira eta Ohiko Batzar Orokorrean bildutako elkargokideek hautatuko dituzte. Batzar Orokorra abendurako deituko da, beti ere Elkargoaren Kontseilu Nagusiko karguen hauteskundeak egin baino lehen. Batzarra egin eta 15 eguneko epearen barruan, Elkargoak Gobernu Batzordeko kideen zerrendaren berri emango dio Kontseiluari.

#### 29. artikulua.– Hutsuneak.

Kideren baten heriotzagatik edo inork kargua uzteagatik Gobernu Batzordean hutsik geratzen diren postuak Batzorde Orokorra hornituko ditu, postua hutsik geratu den unetik zenbatzen hasi eta ondoren go hiru hilabeteko epearen barruan.

b) Velar por el correcto comportamiento profesional de los colegiados, tanto en sus relaciones mutuas, como las que tenga con terceros.

c) Promover las acciones oportunas para impedir el ejercicio de la profesión a quien no tenga habilitación legal para hacerlo.

d) Publicar las convocatorias de elecciones para proveer los cargos de la Junta de Gobierno.

e) Incoar a los colegiados los expedientes disciplinarios que procedan.

26.2.– En relación con la vida económica del Colegio:

a) Recaudar y administrar los fondos del Colegio.

b) Redactar los presupuestos y rendir anualmente las cuentas a la Junta General de colegiados. A este fin, al menos con diez días de antelación a la celebración de la Junta General Ordinaria, estarán las cuentas expuestas en el Colegio a disposición de los colegiados para su examen.

c) Autorizar los movimientos de fondos en los casos de apertura o traspaso de cuentas bancarias.

d) La contratación del personal al servicio del Colegio, fijar sus atribuciones y cuanto se refiera al régimen laboral disciplinario y recompensa del mismo.

26.3.– En relación con los organismos oficiales en su mismo ámbito territorial:

a) Defender a los colegiados en el desempeño de sus funciones profesionales.

b) Impulsar, en nombre del Colegio, cuantas mejoras estime convenientes para el mejor desarrollo de la profesión en el ámbito colegial, lo mismo que aquello que pueda revestir interés profesional.

#### Artículo 27.– Cargos.

Este Colegio se regirá por una Junta de Gobierno compuesta por un mínimo de 4 y un máximo de 10 colegiados, de los cuales al menos uno ostentará el cargo de Presidente, otro de Vicepresidente, otro de Secretario y otro de Tesorero.

#### Artículo 28.– Elección.

Los cargos de la Junta de Gobierno durarán cuatro años y serán elegidos por los colegiados constituidos en Junta General Ordinaria, convocada en el mes de diciembre del año que corresponda, y siempre con anterioridad a las elecciones de cargos del Consejo General de Colegios. En el plazo de 15 días siguientes a la Junta, el Colegio notificará al Consejo la composición de la Junta de Gobierno.

#### Artículo 29.– Vacantes.

Las vacantes que se produjesen en la Junta de Gobierno por cese o fallecimiento de alguno de sus miembros, se proveerán por la Junta General en los tres meses siguientes de haber ocurrido el hecho.

**30. artikulua.**– Bilkurak.

Gobernu Batzordea hiru hilabete behin, behintzat, bilduko da; eta lehendakariak deitzen duenean edo kideen ehuneko hogeik eskatzen duenean ere bilduko da. Deialdia egiteko epea 48 ordukoa izango da, premia larriko kasuak salbu.

**31. artikulua.**– Erabakiak.

Gobernu Batzordearen erabakiak baliodunak izateko, kideen erdiak baino gehiagok egon beharko dute, gutxienez, bertaratuta edo beste kide batek ordezkaturik. Erabakiak botoen gehiengo soilaz hartuko dira.

**32. artikulua.**– Akten liburua.

Gobernu Batzordeko Idazkaritzak akten liburu bat antolatuko du. Bertan, bilkura bakoitzera joandakoen nahiz ordezkaturikoen izenak, egiten diren bilkuren erreferentzia eta hartzen diren erabakien testuak jasoko dira. Akta horiek idazkariaren sinaduraz eta lehendakariaren oniritziarekin baimenduko dira.

**33. artikulua.**– Egitekoak.

Lehendakariak elkargoa ordezkaturik du ekitaldi ofizialekin edo kudeaketa lanekin, Gobernu Batzordearen erabakiak beteko ditu, lege-arauek ematen dizkieten ahalmenak eta funtzioak erabiliko ditu, eta kalitatezko botoa izango du, berdinketak ebazteko.

Lehendakariordeek, beren hurrenkeraren arabera, lehendakaria ordezkaturik dute ez dagoenean edo gaitxo dagoenean.

Idazkariak batzordeek egiten dituzten bilkuren fedea emango du eta aktak egingo ditu, horretarako prestatutako liburuan jasotzeko; beharrezkoa denean, elkargoko idazkiak egingo ditu, lehendakariaren oniritziarekin. Ez dagoenean edo gaixorik dagoenean idazkariordeak ordezkaturik du.

Diruzainak fondo sozialak zainduko ditu eta ko-brantzak eta ordainketak egingo ditu, lehendakariaren «ordaintzeko aginduarekin» eta kontulariaren «jakinararen gainean nago» adierazpenarekin.

Kontulariak kontularitza soziala zainduko du, eta diruzaina ordezkaturik du ez dagoenean edo gaixorik dagoenean.

**34. artikulua.**– Hauteskundeak.

Gobernu Batzordeko kideak boto-eskubidea duten elkargokideek hautatuko dituzte, bozketaz.

**35. artikulua.**– Gobernu Batzordeak elkargoa hauteskundeak egingo direla iragarriko du, berritu beharreko karguen agintaldia amaitu baino hogeiegun lehenago, eta botoa emateko eskubidea duten elkargokideen zerrenda argitaratu eta jendaurrean jaritzeko aginduko du.

**Artículo 30.**– Reuniones.

La Junta de Gobierno se reunirá, al menos, una vez cada trimestre y, en todo caso, a convocatoria del Presidente o a petición del veinte por ciento de los componentes de la misma. El Plazo de convocatoria será de 48 horas, salvo casos de reconocida urgencia.

**Artículo 31.**– Acuerdos.

Para que los acuerdos de la Junta de Gobierno adquieran validez, deberán de estar presentes o representados por otro directivo, por lo menos, más de la mitad de sus componentes. La aprobación de los acuerdos se efectuará por mayoría simple de votos.

**Artículo 32.**– Libro de Actas.

La Secretaría de la Junta de Gobierno llevará un libro de actas debidamente habilitado, en el que constarán los nombres de los asistentes, o representantes, a cada sesión, la referencia de las sesiones que se celebren y el texto de los acuerdos adoptados. Estas actas se autorizarán con la firma del Secretario y el visto bueno del Presidente.

**Artículo 33.**– Funciones.

El Presidente ejercerá la representación del Colegio en todos los actos oficiales o de gestión, ejecutará los acuerdos de la Junta de Gobierno y ejercerá cuantas facultades y funciones le conceden las normas legales y disfrutará de voto de calidad para dirimir los empates.

Los Vicepresidentes, por su orden, sustituirán al Presidente en ausencias o enfermedades.

El Secretario dará fe de las sesiones que celebren las Juntas, y extenderá las correspondientes actas que se harán constar en el libro habilitado a estos efectos, y expedirá los documentos del Colegio con, cuando sea necesario, el visado del Presidente. Será sustituido, en caso de ausencia o enfermedad, por el Vicesecretario.

El Tesorero custodiará los fondos sociales, efectuando los cobros y los pagos, con el «páguese» del Presidente y el «tomé razón» del Contador.

El Contador cuidará de la contabilidad social y sustituirá al Tesorero en ausencia o enfermedad y recíprocamente.

**Artículo 34.**– Elecciones.

Los miembros de la Junta de Gobierno serán elegidos por sufragio entre todos los colegiados con derecho a voto.

**Artículo 35.**– La Junta de Gobierno anunciará en el Colegio las elecciones con una antelación de veinte días una vez finalizado el mandato de los cargos a renovar, mandando publicar y exponer la lista de colegiados con derecho a emitir su voto.

**36. artikulua.**– Elkargoko zuzendaritza-karguetarako botoa pertsonalki nahiz postaz eman daiteke. Botoa emateko, elkargokideek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Elkargoko obligazio guztiak beteta eduki beharko dituzte.
- b) Lanbidean aritzeko etenaldian daudenek ez dute botorik ematerik izango.
- c) Kasua bada, diziiplina-espedientean jarritako zigorrak beteta eduki beharko dituzte.

**37. artikulua.**– Hautagaiak.

Elkargokide guztiak hautagai izan daitezke elkargoko edozein zuzendaritza-kargutarako, aurreko artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Hautagaien aurkezpena eta karguen hautespena, Kontseiluaren Estatutu Orokorretako 55., 56. eta 57. artikuluetan xedatzen denaren arabera egingo dira.

## II. ATALA BATZORDE OROKORRAK

**38. artikulua.**– Elkargokideen Batzorde Orokorra Elkargoaren organo gorena da. Batzordeak, estatutu hauetako eskumenak erabiliz hartzen ditu erabakiak, eta horiek lotesleak dira elkargokide guztientzat.

Elkargokideen Batzorde Orokorraren eskumenak:

- a) Estatutuak onartzea eta aldatzea.
- b) Ohiko eta ezohiko aurrekontuak onartzea eta horiei dagozkien kontuen berri ematea.
- c) Elkargoko ondasunen inbertsio-proposamenak onartzea.
- d) Gai profesionalak hobeto aztertzeako batzordeak sortzea, hala behar denean.
- e) Gobernu Batzordeko kideak hautatzea.
- f) Gobernu Batzordeko kideen jarduera aztertzea, onartzea edo, kasua bada, gaitzestea.

**39. artikulua.**– Batzorde Orokorrak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Ohiko Batzorde Orokorra urtero abenduan bilduko da, hala dagokionean Gobernu Batzordean berritu behar diren karguak hautatzeko. Batzordearen kudeaketa ere aztertuko du, eta bere esku uzten dizkieten gai guztiak ebatziko ditu.

Ezohikoak izango dira Gobernu Batzordeak egiten dituen gainerakoak. Deialdian agertzen diren gaiak baino ezingo dira aztertu.

Ezohiko Batzorde Orokorrak Gobernu Batzordeak ebazten duenean bilduko dira, bai eta elkargokideen

**Artículo 36.**– Tendrán derecho a emitir su voto para cargos directivos del Colegio, personalmente o por correo, todos los colegiados que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Encontrarse al corriente en el cumplimiento de todas sus obligaciones colegiales.
- b) No hallarse suspenso para el ejercicio de la profesión.
- c) Haber cumplido, en su caso, las sanciones que hubiesen podido imponérseles en expediente disciplinario.

**Artículo 37.**– Candidatos.

Todos los colegiados podrán presentarse como candidatos para cualquier cargo directivo del Colegio, siempre que cumplan las condiciones exigidas en el artículo anterior.

La presentación de candidatos y la elección de los cargos correspondientes se realizarán de acuerdo con lo dispuesto en los Artos. 55 a 57 de los Estatutos Generales del Consejo.

## SECCIÓN II DE LAS JUNTAS GENERALES

**Artículo 38.**– La Junta General de colegiados es el órgano supremo del Colegio. Sus acuerdos, tomados dentro de las atribuciones que en estos Estatutos se fijan, obligan a todos los colegiados.

Son atribuciones de la Junta General:

- a) La aprobación y modificación de los Estatutos.
- b) Aprobar los presupuestos ordinarios y extraordinarios y su rendición de cuentas.
- c) Aprobar las propuestas de inversión de los bienes propiedad del Colegio.
- d) Crear, comisiones, en su caso, para el mejor estudio de los asuntos profesionales que lo requieran.
- e) Elegir las personas que han de formar parte de la Junta de Gobierno.
- f) Examinar, aprobar o censurar, en su caso, la actuación de los miembros de la Junta de Gobierno.

**Artículo 39.**– Las Juntas Generales podrán ser Ordinarias o Extraordinarias.

La Junta General Ordinaria se reunirá en el mes de diciembre de cada año, al objeto de proceder, en su caso, a la elección de los cargos que hayan de renovarse en la Junta de Gobierno, examinar la gestión de la Junta y resolver sobre los temas que se sometan a su consideración.

Serán extraordinarias todas las demás juntas que celebre el Colegio. No pudiendo tratar en ellas más que de los asuntos que figuren en la convocatoria.

Las Juntas Generales Extraordinarias se reunirán cuando lo acuerde la Junta de Gobierno, y también a

% 20k gutxienez eskatzen dutenean ere. Eskabidean deialdiaren xedea jarriko da, argi eta garbi.

Ohiko Batzar Orokorren gai-zerrenda elkargokide guztiei bidaliko zaie, hamar egun lehenago, gutxienez.

**40. artikulua.**– Batzorde Orokorrek balioz eratzeko, lehenengo deialdian, batzordea osatzen duten elkargokideen erdiak gehi batek egon beharko dute, bertaratuta edo ordezkaturik. Bigarren deialdian, berriz, ez da gutxienerako kopururik beharko.

Elkargokide guztiek boto-eskubidea izango dute, elkargoko betebeharrak eguneratuta badituzte.

**41. artikulua.**– Batzar Orokorretara joatea nahitaezkoa da. Hala ere, elkargokideren batek ezinezkoa badu joatea eta behar bezala justifikatzen badu, beste elkargokide bati eman diezaioke bere ordezkotza, idatziz, Kontseiluaren Estatutu Orokorretako 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzordeko karguak hautatzen direnean salbu.

Elkargokide bakoitzak ordezkotza bakarra izan dezake.

**42. artikulua.**– Bozketa.

Eztabaidatzen diren gaiak buruzko adostasunik egon ezean, bozketa egitea proposatu ahal izango du lehendakariak. Bertan dauden elkargokideen botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.

Bozketak hiru motakoak dira: arrunta, izenduna eta boto-txartel bidezkoa.

Bozketa arrunta lehendakariak ezartzen duen hurrenkeran zutituz egingo da: eztabaidatzen den bozketa onartzen dutenak, onartzen ez dutenak eta abstenitzen direnak; bertan daudenen hogeirenak eskatzen duenean egingo da.

Bozketa izenduna honela egingo da: elkargokideak bere bi abizen esan eta segidan «bai», «ez» edo «abstenitu egiten naiz» esan beharko du; gutxienez bertan daudenen hamarrenak eskatzen duenean egingo da.

Boto-txartel bidezko bozketa batzarrera joandakoen herenak eskatzen duenean, edo lehendakariak, Mahaia ados dagoela, eskatzen duenean egingo da, elkargokideen begiruneri eragiten zaiola uste denean.

Elkargokideek botoa postaz bidal dezakete, Gobernu Batzordeak karguak berritzeko hauteskunde deialdian adierazten dituen arauak kontuan izanik.

petición expresa de, al menos, el veinte por ciento de los colegiados. En la solicitud deberá expresarse con claridad el objeto de la convocatoria.

El orden del día de las Juntas Generales Ordinarias se remitirá a todos los colegiados con una antelación mínima de diez días.

**Artículo 40.**– Las Juntas Generales se entenderán válidamente constituidas en primera convocatoria cuando, presentes y representados, concurren la mitad más uno de los colegiados que lo integran, y cualquiera que sea el número y la asistencia, en segunda convocatoria.

Tendrán derecho a voto todos los colegiados, siempre que estén al corriente de sus obligaciones colegiales.

**Artículo 41.**– La asistencia a las Juntas Generales es obligatoria. No obstante, cuando causas debidamente justificadas impidan la asistencia personal de un colegiado, podrá éste delegar en otro Agente, por escrito, de acuerdo con lo establecido en el artículo 64 de los Estatutos Generales del Consejo, salvo cuando se trate de la elección de los cargos de la Junta de Gobierno.

Cada colegiado solamente podrá ostentar una delegación.

**Artículo 42.**– Votación.

Si no existiera unanimidad en los asuntos sometidos a debate, el Presidente podrá proponer que se celebre votación. Los acuerdos se adoptarán, por mayoría simple de votos entre los colegiados asistentes.

Las votaciones serán de tres clases: ordinaria, nominal y por papeleta.

La votación ordinaria se verificará levantándose en el orden que establezca el Presidente: los que aprueben la votación que se debate, los que desaprueben y los que se abstengan, y se efectuará siempre que lo pida la vigésima parte de los asistentes.

La votación nominal se realizará diciendo el colegiado sus dos apellidos seguidos de la palabra «sí», «no» o «me abstengo», y tendrá lugar cuando lo soliciten como mínimo, la décima parte de los asistentes.

La votación por papeleta se celebrará cuando lo pida la tercera parte de los asistentes a la Junta o la proponga el Presidente con el consenso de la Mesa, por considerar que afecta al decoro de los colegiados.

Los colegiados podrán utilizar el voto por correo, de acuerdo con las normas que señalará la Junta de Gobierno al convocar elecciones para la renovación de cargos.

## V. KAPITULUA ELKARGOAREN EKONOMIA-ARAU BIDEA

**43. artikulua.**— Elkargoaren baliabide arruntak izango dira honako hauek:

a) Korporazioak dituen ondasun eta eskubideen produktuak.

b) Elkargokideek ordaindu behar dituzten sartze-eskubideak, bai eta aldizkako kuotak ere.

c) Aduanako eragiketa ezberdinak oinarritzat hartuz finka daitezkeen kuotak.

d) Elkargoak egiten dituen argitalpenetatik ateratako etekinak.

**44. artikulua.**— Aparteko baliabideak izango dira honako hauek:

a) Entitate publikoek edo pertsona pribatuek elkargoari emandako diru-laguntzak edo dohaintzak.

b) Ezohiko derramak eta kuotak, Elkargokideen Batzorde Orokorrek ebazten dituenak.

**45. artikulua.**— Baliabide arruntak eta apartekoak Profesionalek Elkargoei buruzko Legeak eta estatutu-eta eta araudietako arauak esleitutako obligazioak betetzeko izango dira soilik.

**46. artikulua.**— Elkargoak gastuen eta sarreraren ohiko aurrekontuak eta, egonez gero, ezohikoak prestatuko ditu urtero.

**47. artikulua.**— Auditoretza.

Gobernu Batzordeak Batzorde Orokorri onesteko aurkezten dizkion elkargoaren urteko kontuak Batzorde Orokorreari bertaratu diren artean aukeratuak diren elkargokideek ikuskatuko dituzte. Elkargokide horiek ez dira izango Gobernu Batzordeko kideak.

Kontuak berresteko eginbidean, espreski adierazi beharko da kontu-azterlariak ikuskatutako kontuekin ados daudela edo, hala dagokionean, kontuekin zergatik ez dauden ados. Azken kasu horretan, Gobernu Batzordeari txosten xehatua aurkeztu beharko diote aurkeztutako kontuak zuzentzeko, eta kontuetan aldaketaren bat egiten bada, berriz ere Batzorde Orokorrek onetsi beharko ditu.

## VI. KAPITULUA DIZIPLINA-ERREGIMENA

**48. artikulua.**— Zigorrek horretarako bideratutako espedientearen gainean hartutako erabakiaren indarrez baino ezingo dira jarri, estatutu hauetan arautzen den prozeduraren eta Profesionalek Elkargoei buruzko Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## CAPÍTULO V RÉGIMEN ECONÓMICO DEL COLEGIO

**Artículo 43.**— Serán recursos ordinarios del Colegio:

a) Los productos de los bienes y derechos que posea la Corporación.

b) Los derechos de incorporación, así como las cuotas periódicas que los colegiados deben satisfacer.

c) Las cuotas que se puedan fijar tomando como base las diferentes intervenciones aduaneras.

d) Los beneficios obtenidos con las publicaciones que el Colegio pueda realizar.

**Artículo 44.**— Constituirán recursos extraordinarios:

a) Las subvenciones o donativos concedidos al Colegio por parte de entidades públicas o de personas privadas.

b) Las derramas y cuotas extraordinarias que con tal carácter pueda acordar la Junta General de colegiados.

**Artículo 45.**— La totalidad de los recursos ordinarios o extraordinarios deberá aplicarse con carácter exclusivo al cumplimiento de las obligaciones atribuidas por la Ley de Colegios Profesionales y por las normas estatutarias y reglamentarias.

**Artículo 46.**— El Colegio formulará anualmente sus presupuestos ordinarios de gastos e ingresos, y los extraordinarios, si los hubiere.

**Artículo 47.**— Auditoría.

Las cuentas anuales del Colegio, que la Junta de Gobierno presente para su aprobación a la Junta General, serán auditadas por dos censores de cuentas, elegidos a este efecto por los colegiados asistentes entre los que no sean miembros de la Junta de Gobierno.

En la diligencia sancionadora deberá constar expresamente la conformidad de los Censores con las cuentas auditadas y, si procediera, los reparos o motivos de disconformidad con las mismas, extendiendo informe detallado que será presentado a la Junta de Gobierno para la corrección de las cuentas presentadas a la aprobación de la Junta General.

## CAPÍTULO VI RÉGIMEN DISCIPLINARIO

**Artículo 48.**— No se pondrán imponer sanciones sino en virtud de resolución dictada en el expediente instruido al efecto, de acuerdo con el procedimiento regulado en estos Estatutos y lo establecido en el artículo 19 de la Ley de Colegios Profesionales.



**49. artikulua.**– Administrazioari dagozkion ahalmenak gorabehera, Legearekin eta ezarritako prozedurekin bat etorritik, Elkargo Ofizialaren aurrean espedienteari hasiera emateko eskumena Kontseilu Nagusiak, Batzorde Orokorrak, Gobernu Batzordeak eta edozein agente elkargokidek izango dute.

Diziplina-ahalmena honako hauei dagokie:

a) Kontseilu Nagusiari, ukitutako pertsona Elkargoko edo Kontseiluko Gobernu Batzordeko kidea denean.

b) Batzorde Orokorrari, elkargokideen gainerako kasuetan.

**50. artikulua.**– Zigor-espediente guztiak banan-banan izapidetuko dira eta antzinatasunaren eta hasiera-urtearen arabera zenbatuko dira, hurrenez hurren.

**51. artikulua.**– Nolanahi ere, kargu-orri edo salaketa batez hasiko da prozedura, aurrez aipatutako pertsonen edo erakundeek aurkeztuta, elkargo honen Gobernu Batzordean.

Ez da izenpetu gabeko salaketarik onartuko.

Gobernu Batzordeak ageri-agerian funsgabeak diren salaketak baztertu egingo ditu, arrazoitutako erabaki batez.

**52. artikulua.**– Salaketa edo kargu-orria jaso ostean, Gobernu Batzordeak horren kopia bat bidaliko dio salatuari. Salatuak zortzi eguneko epea izango du erantzuteko, bere eskubidearen alde egokituz jotzen duena alegatu ahal izango du eta erabiliko dituen proba guztiak proposatuko ditu.

Zitazio edo jakinarazpen oro gutun ziurtatuz egingo da, hartu izanaren adierazpenarekin; espedienteari posta egiaztagiriak erantsiko zaizkio.

**53. artikulua.**– Salaketa edo kargu-orria erantzunda edo horretarako epea iraganda, Gobernu Batzordeak, bere kabuz edo alderdiren batek eskatuta, probaldi bat irekitzea erabaki ahal izango du, gehienez 20 egunekoa, behar diren probak egin ahal izateko.

Probaldi horretan, erruztatuak edozein proba proposatu ahal izango du, bere interesen alde.

Elkargoaren Gobernu Batzordeak ere ahalmen hori edukiko du, eta gertakariak argitzeko bidezkoztat jotzen duen edozein proba egin dezake.

Epea amaituta, eta doakionari entzun ondoren, Gobernu Batzordea bildu, eta gehiengoz, hartu beharreko erabakia hartuko du eta Batzorde Orokorrak berretsiko du, zeina arrazoitutako idazki batez jakinaraziko zaion doakionari.

**Artículo 49.**– Con independencia de las facultades que a la Administración le competen, de acuerdo con la Ley y los procedimientos establecidos, serán competentes para proponer la incoación de expedientes ante este Colegio Oficial, el Consejo General, la Junta General, la Junta de Gobierno, y cualquier Agente colegiado.

La potestad disciplinaria corresponde:

a) Al Consejo General, cuando la persona afectada ostente la condición de miembro de la Junta de Gobierno del Colegio o del propio Consejo.

b) A la Junta General, en los demás casos de colegiados.

**Artículo 50.**– Todo expediente sancionador será tramitado de manera independiente y numerado de forma correlativa por orden de antigüedad y por año de iniciación.

**Artículo 51.**– En todo caso, el procedimiento se iniciará mediante escrito de denuncia o pliego de cargos presentado por las personas u organismos mencionados anteriormente, ante la Junta de Gobierno de este Colegio.

No se admitirán denuncias anónimas.

La Junta de Gobierno rechazará, en resolución razonada, las denuncias manifestamente infundadas.

**Artículo 52.**– Una vez recibida la denuncia o pliego de cargos, La Junta de Gobierno dará traslado de copia de la misma a la persona denunciada, que habrá de contestarla en un plazo máximo de ocho días, alegando todo lo que en derecho convenga y proponiendo todas las pruebas de que intente valerse.

Toda citación o notificación se hará por carta certificada con acuse de recibo, uniendo al expediente los comprobantes de correos.

**Artículo 53.**– Contestada la denuncia o el pliego de cargos, o transcurrido el plazo para hacerlo, la Junta de Gobierno, de oficio o a instancia de parte, podrá acordar la apertura de un período probatorio por un plazo de veinte días como máximo, a fin de que puedan practicarse las pruebas pertinentes.

Durante el período probatorio, el inculpado podrá proponer la práctica de cualquier tipo de prueba, en defensa de sus intereses.

La misma facultad tendrá la Junta de Gobierno del Colegio, que practicará el tipo de prueba que considere conveniente para el esclarecimiento de los hechos.

Cumplido el plazo, y previa audiencia al interesado, la Junta de Gobierno se reunirá y adoptará, por mayoría, la propuesta que proceda, cuya resolución será decidida por la Junta General, y comunicada al interesado mediante escrito razonado.

60. artikuluan adierazten den kasuan, ebazpena Batzorde Orokorrak berretsi beharko du, eta Kontseilu Nagusiari eta Administrazio eskudunei horren berri eman beharko die.

Gobernu Batzordeko kideren bat gehiengoz hartutako ebazpenarekin ados egon ezean, boto bereizi bat eman ahal izango du.

#### **54. artikulua.**– Arau-haustek.

Agentek egindako arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izango dira, estatutu hauen ondorioetarako.

a) Falta oso larriak izango dira honako hauek:

1.– Ezgaituta egonik edo bateraezintasun edo debeku-kausaren batean barne hartuta egonik lanbidean jardutea.

2.– Lanbidean jardutearen ondorioz doluzko delitua egitea, parte-hartze maila edozein izanik ere.

3.– Agentzian benetako langile ez direnei ahalmena ematea; ahalmen horiei eustea, estatutu hauek argitaratu aurretik emanikoak izanda ere; eta lanbidean intrusismoa errazten edo sorrazten duen beste edozein ekintza.

4.– Kontu ofizialak aldatuta ematea, eta horren ondorioz, eskatzaileengan kalte larriak sortzea; salbuesita geratuko dira justifika daitezkeen hutsegiteak.

5.– Aduana-agentek, indarrean dauden estatutuetako 27. artikuluan adierazten den derrigorrezko jakinarazpena egin gabe, beste elkargo bateko barrutian lanbidean jardutea.

6.– Bi urteko epean, gutxienez, bi falta larri egitea.

b) Falta larriak izango dira honako hauek:

1.– Lanbideko betebeharrak ez betetzea, eta hori lanbide-jarduketa eskatzen edo hitzartzen dutenen kalterako izatea.

2.– Elkargoen Legearen 13. artikulua aipatzen duen derrigorrezko lana ez betetzea, behar bezala eskatu arren; zerbitzua eskaintzea eragozten duen arrazoi justifikatu bat badago, ez da hutsegite larritzat hartuko.

3.– Lehia desleiala eta zintzotasun eza dakarten ekintzak.

4.– Irain larriak egitea lanbide bereko beste profesional batzuen duintasunari nahiz lanbideko gobernu-organoei, edo laneko arrazoiengatik berarekin harremanetan diren pertsona edo erakundeei, bai eta beroriei eraso fisikoak egitea ere.

5.– Kontseilu edo elkargo profesionalei nahiz barruko organoei behar bezala lan egitea eragozten dieten ekintzak burutzea.

En el supuesto del artículo 60 la resolución habrá de ser ratificada por la Junta General y comunicada al Consejo General y a las Administraciones competentes.

Si alguno de los miembros de la Junta de Gobierno no estuviera de acuerdo con la resolución adoptada por mayoría, emitirá un voto reservado.

#### **Artículo 54.**– Infracciones.

Las infracciones cometidas por los Agentes, a los efectos, del presente Estatuto, se clasificarán en muy graves, graves y leves.

a) Se considerarán como faltas muy graves:

1.– El ejercicio de la profesión en situación de inhabilitación o incurso en causa de incompatibilidad o prohibición.

2.– La comisión en delitos dolosos, en cualquier grado de participación como consecuencia del ejercicio profesional.

3.– El otorgamiento de poderes a personas que no sean trabajadores efectivos de la Agencia; el mantenimiento de dichos poderes, aunque hubiesen sido otorgados con anterioridad a la publicación de estos Estatutos; cualquier otro acto mediante el cual pueda favorecerse o producirse el intrusismo en la profesión.

4.– La alteración indebida de las cuentas oficiales que rindan a sus mandantes, salvo error justificable, cuando resulte perjuicio grave para los mismos.

5.– El ejercicio de la profesión por los Agentes de Aduanas, cuando actúen en la demarcación de otro distinto al de su colegiación, sin la preceptiva comunicación dispuesta en el artículo 27 de los vigentes Estatutos.

6.– La comisión de, al menos, dos faltas graves en el plazo de dos años.

b) Son faltas graves:

1.– El incumplimiento de los deberes profesionales, cuando resulte perjuicio para quienes soliciten o concierten la actuación profesional.

2.– El incumplimiento del deber de ejercicio profesional a que se refiere el artículo 13 de la Ley de Colegios, salvo existencia de causa justificada que imposibilite la prestación del servicio, cuando hubiese sido debidamente requerido al efecto.

3.– Los actos que constituyan competencia desleal o falta de probidad.

4.– La ofensa grave a la dignidad de otros profesionales de su misma profesión o de los órganos de gobierno de ésta, y de las personas e instituciones con quienes se relacione como consecuencia del ejercicio profesional, así como la agresión física a los mismos.

5.– Los actos que impidan o alteren el normal funcionamiento del Colegio, del Consejo, o de sus órganos.

6.– Eskatzen diren agiriak ez gordetzea, erregela-  
menduz ezarritako gutxieneko epean.

7.– Administrazioak, Kontseiluak edo elkargo ho-  
nek agindutakoak bete gabe uztea.

8.– Asegururik ez edukitzea.

9.– Lehenago oso falta larritzat hartuetariko edo-  
zein, Gobernu Batzordearen ustez, gertakariak a)  
idatz-zatian barne hartzen den kalifikazioa emateko  
adina garrantzia ez dutenean.

10.– Bideratze-eragiketak egiteko baimena edo  
ahalmenak ematea, Elkargoak aurretik oniritzia eman  
gabe, aduanan aurkeztu aurretik.

11.– Bi urteko epean gutxienez bost falta larri egi-  
tea.

c) Aduanetako Ordenantzek eta Kontseiluko eta  
Elkargo honetako estatutuek ezartzen dizkioten gai-  
nerako obligazioak urratzea falta arina izango da, beti  
ere falta larria edo oso larria ez bada.

**55. artikulua.**– Agente elkargokideek beren ahal-  
dunek nahiz laguntzaileek eginiko falta oso larriak  
edo falta larriak estali egiten badituzte, erantzukizuna  
izango dute eta arau-hauste larri edo arinei dagozki-  
en zigorrak jarriko zaizkie, hurrenez hurren. Eran-  
tzukizun hori izango dute, halaber, Administrazioak,  
kontseiluak edo elkargoak ohartarazita, ahaldun edo  
laguntzaile horiekin hartu beharreko neurriak hartzen  
ez badituzte.

Arrazoi horiengatik, erantzukizun eta zigor horiek  
izango dituzte elkargoko agenteek, pertsona juridiko-  
ek, beren ordezkariak eta menpekoek Administrazio-  
an duten jarduerari dagokionez.

**56. artikulua.**– Preskripzioa.

56.1.– Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskri-  
batuko dira, larriak urte bira eta arinak urtebetera.

56.2.– Preskribatzeko epea arau-haustea egin zen  
egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

56.3.– Zigortzeko prozedurari hasiera ematen  
bazaio interesatua jakinaren gainean dagoela,  
preskripzio-epea eten egingo da. Baina zigortzeko  
expedientea sei hilabete baino gehiagoan geldirik  
baldin badago, eta errua ez baldin bada ustezko  
arau-hauslearena, preskripzio-epea berriz ere martxan  
jarriko da.

56.4.– Falta oso larriengatik ezarritako zehapenek  
hiru urtera preskribatuko dute, falta larriengatik eza-  
rritakoek bi urtera, eta falta arinengatik ezarritakoek  
urtebetera.

56.5.– Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezarri  
duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik  
aurrera hasiko da kontatzen.

6.– El no conservar la documentación exigida du-  
rante el plazo mínimo establecido reglamentariamen-  
te.

7.– Desatender las órdenes que reciba de la Admi-  
nistración, del Consejo o de este Colegio.

8.– El incumplimiento del deber de aseguramiento.

9.– Cualquiera de las anteriormente enumeradas  
como faltas muy graves, cuando a juicio de la Junta  
de Gobierno, los hechos no tengan trascendencia pa-  
ra la calificación contenida en el artículo anterior.

10.– La concesión de poderes o autorización para  
despachos, sin el visado previo del Colegio, antes de  
su presentación en la Aduana.

11.– La comisión de, al menos, cinco faltas leves  
en el plazo de dos años.

c) Son faltas leves las restantes infracciones de las  
obligaciones que les impongan las Ordenanzas de  
Aduanas, los Estatutos del Consejo y los de este Co-  
legio, siempre que no constituyan infracción grave o  
muy grave.

**Artículo 55.**– Los Agentes colegiados que encu-  
bran faltas muy graves o graves, cometidas por sus  
apoderados o auxiliares, incurrirán en responsabili-  
dad, y se les impondrá las sanciones correspondientes  
a faltas graves o leves, respectivamente. Incurrirán en  
la misma responsabilidad cuando, advertidos por la  
Administración, por el Consejo, o por este Colegio,  
no adopten las medidas oportunas respecto a estos  
apoderados o auxiliares.

Por las mismas causas, y en idéntica responsabi-  
lidad y sanción, incurrirán los Agentes colegiados, per-  
sonas jurídicas, en relación con la actuación de sus  
representantes y dependientes ante la Administración.

**Artículo 56.**– Prescripción.

56.1.– Las infracciones muy graves prescribirán a los  
tres años, las graves a los dos años y las leves al año.

56.2.– El plazo de prescripción comenzará a con-  
tarse desde el día en que la infracción se hubiera co-  
metido.

56.3.– La prescripción se interrumpirá por la ini-  
ciación, con conocimiento del interesado, del proce-  
dimiento sancionador, reanudándose el plazo de pre-  
scripción si el expediente sancionador estuviere paraliz-  
ado durante más de seis meses por causa no imputa-  
ble al presunto infractor.

56.4.– Las sanciones impuestas por faltas muy  
graves prescribirán a los tres años, las impuestas por  
faltas graves a los dos años y las impuestas por faltas  
leves, al año.

56.5.– El plazo de prescripción de las sanciones  
comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel  
en que adquiera firmeza la resolución por la que se  
impone la sanción.

56.6.– Exekuzio-prozedura bat hasiz gero, eta interesatua horren jakitun egonda, preskripzioa eten egingo da, eta exekuzio-prozedura sei hilabete baino gehiago geldirik badago, eta geldirik egotearen errua ez bada arau-hauslearena, berriro hasi beharko da epea zenbatzen.

**57. artikulua.**– Zehapenak.

Aurreko artikuluetan zehaztutako arau-haustekak, honela zigor daitezke:

57.1.– Falta oso larriak:

a) 3.005,07 eta 30.050,61 euro bitarteko isuna.

b) Urtebetetik hogeitaz urtera bitarteko ezgaikuntza, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 17. artikulua adierazitakoaren arabera.

57.2.– Falta larriak:

a) Urtebete arteko ezgaikuntza, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen 17. artikulua adierazitakoaren arabera.

b) 300,51 eta 3.005,06 euro arteko isuna.

57.3.– Falta arinak:

a) Hitzezko edo idatzi bidezko ohartarazpena.

b) Isuna: gehienez, 300,50 eurokoa.

Diru-zigorren zenbatekoa, Legearen 16.7 artikulua adierazitakoaren arabera administratuko da.

**58. artikulua.**– Errekurtsoak.

Gobernu Batzordeak diziplinaren alorrean hartutako erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Kontseilu Nagusian, estatutu hauen 13. artikuluan jasotzen denarekin bat etorritik.

Kontseiluak gai horri loturik eta gora jotzeko errekurtsuak ebazteko hartzen dituen erabakien aurka, zuzenean errekurritu ahal izango da Administrazio-arekiko Auzien Jurisdikzioan.

VII. KAPITULUA  
GORAIPAMENAK ETA SARIAK

**59. artikulua.**– Kontseiluaren Estatutuetako 94. artikulua aipatzen dituen goraipamenak, ezin izango zaizkie Elkargo honetako Gobernu Batzordean dauken kideei eman.

VIII. KAPITULUA  
ELKARGOA DESEGITEA

**60. artikulua.**– Irungo Aduanetako Agenteen eta Komisio-hartzaileen Elkargo Ofiziala desegin ahal izateko, Ezohiko Batzar Orokorra egin beharko da, gainerendana gai hori bakarrik barne hartuz, eta batzar hori egiten den unean boto-eskubidea duten elkargo-kideen % 75ak onartu beharko du.

56.6.– La prescripción se interrumpirá por la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si el mismo está paralizado durante más de seis meses por causa no imputable al infractor.

**Artículo 57.**– Sanciones.

Las infracciones definidas en los artículos anteriores, podrá ser sancionadas en la siguiente forma:

57.1.– Las faltas muy graves con:

a) Multa de 3.005,07 a 30.050,61 euros.

b) Suspensión de colegiación de un año a veinte años, en los términos del artículo 17 de la Ley de Colegio Profesionales.

57.2.– Las faltas graves con:

a) Suspensión de colegiación hasta un año, en los términos del artículo 17 de la Ley de Colegio Profesionales.

b) Multa comprendida entre 300,51 a 3.005,06 euros.

57.3.– Las faltas leves con:

a) Apercibimiento verbal o escrito.

b) Multa que no exceda de 300,50 euros.

El importe de las sanciones pecuniarias se administrará a tenor del artículo 16.7 de la Ley.

**Artículo 58.**– Recursos.

Contra los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno en materia disciplinaria, cabrá interponer recurso de alzada ante el Consejo General, de acuerdo con lo que previene el artículo 13 de estos Estatutos.

Contra los acuerdos del Consejo en la misma materia y los que resuelvan recursos de alzada, se podrá recurrir directamente ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

CAPÍTULO VII  
DISTINCIONES Y PREMIOS

**Artículo 59.**– Las distinciones a que hace referencia el artículo 94 de los Estatutos del Consejo no podrán ser otorgadas a miembros en activo de la Junta de Gobierno de este Colegio.

CAPÍTULO VIII  
DISOLUCIÓN DEL COLEGIO

**Artículo 60.**– Para poder disolver el Colegio Oficial de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irún será necesario el acuerdo en Junta General Extraordinaria, convocada a este solo efecto, del 75% de los Agentes colegiados que en el momento de la misma tengan derecho a voto.

Edozein arrazoiengatik Irungo Aduanetako Agenteen eta Komisio-hartzaileen Elkargo Ofiziala desegin egiten bada edo legezko izateari uzten badio, desegiteko unean titular ziren elkargokideen artean banatuko da bertako ondarea, zati berdinetan.

Laguntza publikoak jaso baldin badira, laguntza horien arau erregulatzailleetan adierazten den helburua emango zaie.

Kitapena egiteko prozedura Eusko Legebiltzarraren lege batek ezarri beharko duena izango da, indarrean dagoen Elkargo Profesionalen Legearen 31. artikulua xedatzen duenaren arabera.

#### IX. KAPITULUA ESTATUTUAK ERABERRITZEA

**61. artikulua.**– Estatutuak aldatzeko ekimena Gobernu Batzordeari dagokio. Elkargokideek ere aldaketa eska dezakete, eta hori egiteko inskribituta dauden agenteen ehuneko hogeita bost beharko da gutxienez.

Hartzen diren erabakiak, batzar horretara bertaratu diren elkargokideen gehiengo absolutuarekin hartu beharko dira.

En el caso de que por cualquier causa se disolviera o dejara de existir legalmente el Colegio Oficial de Agentes y Comisionistas de Aduanas de Irun, su patrimonio será repartido en partes iguales entre todos los miembros del mismo que fueran titulares colegiados en el momento de la disolución.

Si existieran ayudas públicas, el destino de éstas será el establecido en las normas reguladoras de las mismas.

El procedimiento para la liquidación será el que se establezca por Ley del Parlamento Vasco, según dispone el artículo 31 de la vigente Ley de Colegios Profesionales.

#### CAPÍTULO IX REFORMA DE LOS ESTATUTOS

**Artículo 61.**– La iniciativa para la reforma de los Estatutos corresponderá a la Junta de Gobierno. También podrá ser instada por los colegiados, en cuyo caso será preciso un mínimo del veinticinco por ciento de los Agentes inscritos.

Los acuerdos que se adopten deberán contar con la mayoría absoluta de los colegiados presentes en la Junta de que se trate.